

DBUSEK DONOSTIAN ANTOLATUTAKO “HIRI GARBIAK” KONFERENTZIA ARRAKASTA HAUNDIA IZAN DU

Ekainaren 15ean eta 16an, Europako 90 bat aditu elkartu dira Miramar jauregian garraio publikoetan erregai berriztagarriak edo elektromugikortasuna erabiltzeak etorkizunerako ekar ditzakeen onurez gogoeta egiteko eta aztertzekeo neurri horiek zenbateraino hobetuko litzuketean eguratsaren kalitatea eta irisgarritasuna etorkizuneko hirietan.

Konferentzia hiriaren gidaritza politiko berria hasten zen egun berean izan zen. Juan Carlos Izagirre alkateak hitzaldi honi hasiera emanaz ekin zion bere agintaldiari, eta hantxe hiriak hartutako hainbat konpromiso berretsi zituen, esaterako mugikortasun iraunkorraren politikekin eta garraio publikoaren sustapenarekin hartutakoa, oinezkoen eta txirrindularien hiria izateko konpromisoa, eta, nola ez, CIVITAS proiektuan lanean jarraitzekoa.





THE CIVITAS INITIATIVE
IS CO-FINANCED BY THE
EUROPEAN UNION

'Clean fuels, clean vehicles, cleaner cities'

ARCHIMEDES proiektuak, Donostia-San Sebastian hiriak, BIOSIRE proiektuak eta ARCHIMEDES VANGUARDen difusiorako gaiez arduratzen den partzuegoak izan dira erregaien eta ibilgailuen etorkizuneko joerak landu eta horietaz hitz egiteko izan ditugun bi egun horiek posible egin dituztenak.

Ekitaldian konbinatu egin dira alde batetik Europako aditu ezagunen aurkezpenak eta, bestetik, tailerrak eta elkarrizketarako espazioak gai konplexu hauetan sakontzeko. Bertaratuak hainbat alorretatik etorritakoak izan dira (udal eta eskualdeetako gestioa, enpresak, ikerketa teknologikorako zentroak), eta asko garraio publikoen arduradunak ziren.

Xehetasunez azaldu dituzte erregai berriztagarriekin dabilzan ibilgailu, ibilgailu elektriko eta ibilgailu hibridoak erabiltzen hasterakoan izan dituzten esperientziak, eta aztertu egin dira hirietako mugikortasun sistema zaharkitua eta desagertzeaz daudena ordezkatzeko dauden aukeretako bakoitzak dituen alde onak eta txarrak. Beharrezko aldaketa errazteko prozesuak ere aztertu ziren.

Hamabi herrialde eta hogeitahi hiri egon dira ordezkaturatuta topagune honetan.

Ateratako ondorioak, nagusiki, etokizunerako dauden aukerak, aldaketarako eman beharreko urratsak eta eragileek aldaketa horretan laguntzeko izan behar dituzten jarrerak izan dira. Automobilgintzaren sektorea, ibilgailuen arduradunak, tokiko eta eskualdeetako agintariak, eta legegileak.





THE CIVITAS INITIATIVE
IS CO-FINANCED BY THE
EUROPEAN UNION

Bigarren belaunaldiko bioerregaiak: aukera ona birziklapenerako eta mugikortasunerako.

Bioerregaiak poliki-poliki sartzen ari dira Donostiako autobusetan eta horren kontrol eta jarraipen zorrotza egiten ari gara etengabe; horrekin guztiarekin erraza da pentsatzea laster gasolina edo dieselaren ordeztu erabilitako olioetatik datozen erregaiak erabiliko ditugula. Aukera guztiak aztertu ondoren, bigarren belaunaldiko biodieselak aukeratu da.

ARCHIMEDES CIVITAS proiektuaren helburuak lortuta daude: gaur egun Euro 1,2,3 eta 4 autobus guztiek gutxienez B20 nahasketa bat erabiltzen dute ibiltzeko. B100 eta B80 biodieselarekin egindako probak positiboak izan dira, eta ibilgailu asko B50a erabiltzen ari da. Eta EEV ibilgailuak sartu dira, eta horiek ere biodieselak erabiltzen hasi dira. Bukatzeko, jada serieko lehen autobus hibrido europarra ikus dezakegu Donostiako kaleetatik ibiltzen.

Emaitzek erakusten dutenez, aukera ona da eta, gainera, bi arazo garrantzitsu konpontzen ditu: Ur beltzak arazteko sisteman isurtzen diren olioak. Eta kutsatzen ez dituzten erregaien premia, hiriguneetan mugitzeko ezinbesteko diren garraioen kasuan. Donostian neurri horiekin erregai fosilen 3,5 milioi litro aurreztuko dira, aldi berean kutsadura eta eguratsera igorritako substantziak gutxituta.

Beste hiri batzuek, esaterako Aalborg hiriak, zerbitzu kontratuen bidez haragi hondakinetatik datozen bioerregaien aurrez finkatutako portzentaje bat erabili beharra ezarri dute autobus eta posta banaketarako ibilgailuetan.

Turismo zonaldeetan egin diren BIOSIRE proiektuaren esperientzia pilotuek berretsi egiten dituzte birziklatutako erregai horien aukerak; izan ere, toki horietan jatetxe eta hoteletan olio hondakin ugari sortzen dira eta arazo handiak egoten dira hondakin horiek gestionatzeko.

Ibilgailu elektrikoak: Erosketa publikoa, etorkizuneko hirietan elektromugikortasuna sartzeko bide bat.

Gai honetan, Stockholmeko eta Rotterdameko hirien esperientzia sendoa dugu.

Gaur egun, Stockholmeko ibilgailuen %12 garbi dira, 120.000 bat autok eta furgonetak gutxiago kutsatzen dute. 2014rako, ibilgailu publiko guztiak garbi izango dira: ibilgailuen %8 elektrikoak edo hibridoak izango dira, eta erregaien %85, gutxi gorabehera, garbiak. Ibilgailu publikoak erosteko baldintzak ezartzeak ekarri du aldaketa hori.

Rotterdameko hiria ere, gorabehera batzuk izan ondoren, azkenean garraio publikorako ibilgailu garbienak dituen hirietako bat da European. Elektromugikortasunaren aldeko apustu sendoa egin du, nahiz eta erabaki horrek gastuak handitzea ekarri dien. Azken estrategiak, nagusiki, ibilgailu eta erregai aukera anitzak izatea eta eragile askoren arteko lankidetzak zabala eratzea dira.



THE CIVITAS INITIATIVE
IS CO-FINANCED BY THE
EUROPEAN UNION

Euskal apustua etorkizunaren alde: Ibilgailu berrien prototipoak

Energiaren Euskal Agentziaren eta automobilgintzaren sektoreko industriaren I+G+b alorraren arteko lankidetzak emaitzak ematen ari da: Bisita teknikoan ikusi ahal izan genituen ibilgailu elektrikoek eta erregai anitzeko ibilgailuen prototipo berriak, euskal industriari elektromugikortasuna ezartzen ari diren enpresen artean leku bat izaten laguntzen ari zaizkionak.

ATUC bilera Donostian

Konferentzian, ATUC Hiri eta metropoli garraioaren elkartearen ordezkariak egon ziren, Donostia baita Teknologia Berrien batzordeak gidatzen dituen elkarrekin horren barruan. ATUC elkarteko idazkari orokorrak eman zion amaiera Konferentziari, eta bertan azpimarratu egin zuen hiriko mugikortasuna dela XXI. mendeko erronka nagusia, eta horren barruan garraio publikoa dela funtsezko elementua. Halaber, garraioan erregai eta ibilgailu garbiak sartzeko dauden aukera guztiak aztertu zituen.

ATUC da garraio publikoak erreferentzia gisa duen erakunde profesionala. Bere barruan hiriko autobus eta tranbientzako Espainiako 74 operadore daude sartuta, hain zuzen ere urtean hiriko 3500 milioi lagun bidaiekin arduratzen direnak. Bukatzeko, elkarteko idazkari orokorrak berrikuntzaren garrantzia azpimarratu zuen, sistema eta prozesuen antolaketa berritu beharra nabarmenduta. 'Teknologia beharrezkoa da, antolaketa, berriz, ezinbestekoa.